


# NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

## SAN MIGEL'EN KANTA ZAR BAT



José Maiza koplaria.

San Migel'en kanta zar au ETXARRI ARANAZ'KO JO. Maiza'ri artu diogu. Euskal jator ta zintzo onek, Josepa Auzmendi bere amari ikasia du. Emakume au Urbasa'ko magalean dagoen Artuko izeneko baserrian jaioa zan. Nunbait Josepama, noizbait San Migel'era igo zalarik bere gazte garaietan, aton bateri abes ti sarra au kantari ari zala

entzun omen zion. Bein entzun eta ikasita etxera itzuli. Erriaren kultura orain arte askotan alai izan da. Kanta au, ezezaguna degu, euskal kutsu aundikoa, gure kultura ezagutzeko bearrizko baita eta errian nola bizi zan San Migel'en kondaira jakiteko bidekoa. Arritzekoa da nola onen antzekorik, R. M. Azkuek eta Alta Donostiak etzuten

mun bildu. Aralar'ko San Migel'eri buruz, ezagutzen ditugun guztietatik zarretakos auz izango degu. Orain Aralar'ko San Migel'eri buruz argitaratuko duten liburu berrian agertuko da kanta au bere doinuarekin.

I  
Nafarroako Uarte Araki-  
[llen  
San Migela joateko allega.  
[tu gifen,  
promesa egiteko deseo  
[aundien  
mendira igo gabe ez nuen  
[jakifien.

II  
San Migel goien goien  
[Aralar mendien  
espata altzaturik gure  
[gaurdien  
kantatu nai nioke umore  
[aundien  
Berak lagunduko dit orain  
[go aldien  
beti izaten gera gu are  
[premien.

III  
Eskatu bear degu Jauna-  
[ri grazia  
ondo explikatzeke kanta  
[onen asia  
Berak ikera dauka inper-  
[no guzia  
Aingeruan mende ango  
[nausia  
oinpean sarturikan ondo  
[itxusia.

IV  
Aingeruak artzean eskuan  
[ezpata  
etsai gaituarentzat asmo  
[okerra da  
laister eman zioten gaix-  
[toaren planta  
oinpean sartu gabe nai  
[zuan eskapa  
gelago egin aurren paga-  
[tuzten ezta.

V  
Aingeruak artzean Zeru-  
[ko abisua  
laister botatzen ditu alde-  
[ko egoak



ARTXULO Baserria.

baita korritu ere bideko  
[leguak  
manifestuan daude a ren  
[milagroak  
baita kapillan ere bertan  
[igaroa.

VI  
Aingerua jexki zan guga-  
[tik mundura  
eskola emateko Jaunaren  
[modura  
salatu ikastera ordutik or-  
[dura  
maisu ona daukagu joate-  
[ko zerura  
gelago salbatzeko onera ei  
[du da.

VII  
Orain formatu bear degu  
[laister Erremara  
penitentzia ekarri berta-  
[tik onera  
konfeso on banarekin ori  
[txit ona da  
gure defensora Jauna ori  
[berta da  
salbatu biar degu ifiola al  
[ba da.

VIII  
Eliza eder onetan bear de-  
[gu bizi  
ez degula joan bear emen-  
[dik igesi  
pridilegio asko ark ditu  
[mereri  
Aingeru guztietan bera da  
[nagusi

zeruetako bidea Berari  
[ikasi.

IX  
Zeruan ba dirade milloin-  
[ka aingeru  
danak an d.biltza Jauna-  
[ren inguru  
prinzipala dalarik ba du  
[zenbat gradu  
San Mige aingerua guz-  
[tietan buru  
biotzetik eskatu anparatu-  
[ko du.

X  
Nafarroko erreinu aundia  
[ta noblea  
Aingeruak or dauka kapl-  
[llen gordea  
asko estimatzen du men-  
[diko lorea  
ez det errex topatzen San-  
[tu bat ohea  
guztionez on a da nai  
[izan pobrea.

Doñua oso errikoia ta po-  
[lita da, egokia irudituko li-  
tzaiguke Aita Riezuk bere  
Euskal Nafar Kantu liburu  
berexian sartzea.

Mirari bat izanda nola bil-  
du huan kanta au Usteke-  
bean Donosti'n José Maiza-  
kin topo egin nuen, gero-  
tik oso adiskideak egin ge-  
ra. Askotan joan naiz bere  
etxera, batez ere Arritzulo

baserria. Euskal kantu za-  
rretako doai aundiko gizona  
degu.

Pixkanaka joango naiz ar-  
gitartzen berak eta bere  
emazteak dakizkiten kanta  
zarra ederrak. Orrelako gi-  
zonak eta kantuak ezin di-  
tugu galdtu.

LATXAGA



## GURE IKASTOLAK (IV)

## ALDIZKARIAK

Euskerak eragozpen asko zuen Nafarroan, eta ez zen makala irakur faltarena: jendeak ez zuen euskeraz leitzen. Irakurtzen ez ba zuen, ezin zen eskolatu eta ikasiak jantzi ere ez. Ikasteko, berri, eskolatan euskera erakusterik ez.

Egoera hau aldatzeko ikastolak sortzea izango zen bi derik motzeta: motzeta bai, baina nua, eta nola? Gure gutxi sumatzen zen garai hartan, eta erri giroak gabe ikastolarik ez. Nahiz eta irakurleak ez izan, aldizkaria sortu beharra zegoen. Nola hasiko ziren leitzen irakurleak ez ba zuten?

1966, aldizkariaren urtea izan zen Nafarroan. Herriaren batean edo beste —Lazalde, Saldias, Arizkun— ba ziren ordurako euskal orritxoak; baina herrikoak. "Umea Dela" ginuen aita Murieta jatorriari esker gure euskal aldizkari zabalduena. Haundidako ere on zen, Euskal-rikko haurtoen dela. Liburu marbil eder batean bildurik dira idazki guztiak, eta ikusi balizik ez da bere garrantzia (1).

Hirugeti ta seian sortu zen "Principe de Viana" euskal erakidea. Ez zen hasierako asmoa xuxen bete: urteberritan ateratzekoa zena, otsalean argitaratu. Izanar-ekin ere, halako zertxo bat gertatu zen: "Roncesvalles" izan behar zuen bere izena. Euskal kutsu haundirik ez izanikan, gure kondairari buruz garrantzitsu zela, zioten zontzaitzak. Nunbaiteko hala beharrek aldatu zuen gauza baimena lortu, eta nolabait hasi behar eta, "Principe de Viana" aldizkari nagusiaren eraskin bezala jaso zen. Izan-buru hori nortasun gehiagokoa zela ikusi genuen aldizka-ri batendako, Nafarroa, eta berarekin jarraiki du. Bide guztiak idekiak zituen izena.

Herriaren aldetik ez zuen berotasun haundirik izan. "Ez dakigu euskeraz leitzen; erderaz egin behar zuten", esaten zitzaizun aurpegiari. "Garai onetan datur euskera ja-so nahi! Asto hilari belarra!" esaten zutenak ere ba ziren. Eta makurrago dena, "euskera kaltegarri" zela eta zapalduak ikusi nahi zutenen mitzota ere ageri zen. Odo- gaiztoko asko ikusi genuen bidean...

Gaur, zazpi urteren buruan, beste batzuek dagokite egindakoaren neurketa egitea. Baina, hasierako etsai agi-riak izildu dira. Euskeraren konzientzia berri bat ba da Nafarroan.

Aldizkariaren urtea esan dut, DIARIO DE NAVARRA ren "euskal orria" ere ordutan sartu bai degu. Hamabos-tek hamabostera, hor dago Nafarro guztirako euskal dela. Egan berriak ez, hain zabalkunde haundiko egunkari be- tean, horrek duen garrantzia. Izan dira, gero, zerbait ha- lako egiten hasi diren beste batzuk. Lehenbizikoa izatea, halare, ez dio hiri inork kenduko.

Aldizkariaren tresna ikutu ondorean, beste gauza asko beren bidez etorriko ziren. Sua pizteak ematen du batzu- tan lana, bago ezte ustelari, batez ere. Berak ekartzen du gero garra.

Sagi

## EUSKALERRIAN BARNA

### Martin Zubieta, Lesakakoa, il da

Lesakako seme jator zan Martin Zubieta "ERBIA" il berri da. Nor dugu Martin Zubieta zena? Lesakan ezagutzen zuten "ERBIA" izen-orezko honekin. Gizon zintzo eta argia. Orain de la berrogeitamaru urte "TOBERAK" izeneko lotzalea zan. Igaz "TOBERAK" delakoak bere lagun zahar Bautista Legasa Genenborda-ko eta Dionisio Asteasu-ekin batera berpiztu zituzten Lesakan eta aiaio batzuk egin zituzten bertan baita Donostiko Trini- dadeko Plazan ere. Martin eta bere lagunak esker ber- ris ere "TOBERAK" fa- matuak editzen ari ziren.

Lesakako herriak bere animaren aldeko ilondoko edo elizetako itelak bere- ziki eskeindut ditzko. Irailaren 24' ean bertako Pa- rrokian, eta arrateko ko zortzietan eliza bete bete zegorarik Meza ederra eman zan. Mezaren erdian Aroz- mena, bertakoa, eta Orloko Echeberria, bertolarieek Martinen oroimenez bertso batruk bota zituzten, eta ko- mekatearen ondoren Genenborda-ko Battista Lesa- ga eta Dionisio Asteasu be- re lagunak "TOBERAK" ere io zituzten bere lagun- kide zenari omenaldi bero eta biotziorra eginez.

Goian bego Martin Zu- bieta zena, Euskal Herriko donu eta tresna zahar ho- nen alde inbeste ahalagie- nak beiratzeko egin zitue- na.

### Belloc-eko Abat Etxea eta Nafarroa

Belloc-eko Abat Etxea, lehen ere esan dugun be- ala, Ipar Euskal Herrian dago, Laburdin, gure Seiga- ren Merindandean urbil urbil kokatua. Izan ere La- bastide - Clairance izeneko herriko inguruetan dago Pralietegi hau ordoki eder eta polit batean ezarri eta egokitua. Txit famatua da Euskal Herrian. Pralle au- nitz bizi dira bertan, ge- hienak euskaldunak, Badi- ra Iparreko Euskalherrian sortuak, direnau hango na-



Toberak Lesakan, Martin Zubieta zena, Asteasu eta Legasa.

fartarrak eta lapurditarrek baita ere hemengo Nafarro- an jaloak direnak ere bai. Oraingo Lehenbizikoa, edo Burua Aita Xabier D'Arte da, euskalduna, euskal poeta, (Iratzeder izenez ezaguna da euskal- dunen artean).

Aita Iratzeder maiteak nahi izan zuen Bere Eliza- ren atarian Ama-Birgina- ren Irudi maitekor eta be- gionezko bat egon zedin hara etortzen direnek Bera ikusita "Ongo Etorri" goxo eta modukoa berel esaten zela ikusi zezaten. Bere as- moa ongi betetzeko orain bixpauri urte gutxi gorabe-

tueli egindut zien.

Eta "La Verdán" del- tzen den Irufeko Eliz-Ba- rriaren Orrian irakurri dugunez iragan den Abuz- tuaren 22'ean Belloc-eko Abat Etxean hango Pralle- ek Irufeko Apezekin Bil- gur-Eguna izan zuten An- dre Amaren Irudi hau be- decinkatzeko.

Egun hartan Irufeko apez agintariak Belloc-eko Pralietegi joan ziran eta Irudiaren Bedekizkoaz ga- inera ar-emanak izan zituz- ten hango apez eta Pralle- ekin. Uste dugu hemendik aurrera elkarbide eta are- manak gero eta narroago izan behar direnik.

### Ederti

EDERTI delakoa Euskal- dun diren artista batzuen elkargoa da. Ogeitalau dira elkartu direnak. Beren as- moak dira arte-lan bakoitza iruehun ale argitaratzeko. Suscriptoreak (arpedu- nak) biltzen ari dira orain. Hoha hemen EDERTI elkar- go honen asmoak zabaltze- ko biddatu didaten orrian esaten dena:

"24 Ertillari (artistak) euskaldunak euren elesti- lanak (arte-lanak) eskeintzen ditzkigute. 24 ertillari euskal- dunon-arte, bakoitzak lan berri bat argitaratuko du (Serigrafia, Xilografia, aguafuete, eta abar) bene- tan. Gaurreguneko euskal artearen ikuspegi berezi ta zoragarri bat izango da. Elestili-lan bilduma hau zu- re gauzatea nahi izatekotan, hilero ale bat artuko zen- duko 425 pezetaren trukean."

24 euskal ertillarien ar- tean Arri, Basterretxea, Ibarrola, Larrea, Zumeta, Merino, Ortiz de Elguea, eta abar dira.

Argitaraldi bakoitzak 300 al izanen ditu; ale bakoita notario jaunaren aurrean ertillariak zenbatu eta izen- petuta egonen da.

Neurriak 70 x 52'60 zm. Paperaren klasea: Super Al- fa 95 guarro, de 85 kilo res- ma izanen dira.

EDERTI ren zuzenbideak: Artekale, 14 - DURANGO (Bizkaia). Edozeinek eska- dezake xehetasun eta ar-

gibide gehiago zuzen bide- haustara zuzenduz.

### Ikastola berriak Nafarroan

Igazko Ikastolak guztiak aurtan ere, batere gabe utsik ere ez eginez, irli- dira. Baño hauek gainera beste lau ikastola berri ditugu Nafarroan; Lau ikastola hauek herri haue- tan egonen dira: Ubarte Arakil, Zubiri, Larrasoa- ña, eta Garraida.

Lehenko Ikastola guz- tiek aurtan haundio dira, umi- ez emendatzen. Adibidez, eta zenbatzuk aipatuz: Iru- feko "Zizur Txiki" (San Fermín delia) aurt- ten seihun neskatto eta muttiko dauka. Elizondo- koak lauretan ogeitsu. Alt- sasukoak beste ainebeste. Lizarrakoak igualtu gutxi gorabera. Irufeko "Paz de Ziganda" deritzanak ikas- tetxe berri eta eder bate- ra joan da (San Juan de Dios en Anaien Klinka ren ondoan dagon Ikastetxera pasatu da) bere "matrikula" aundituzten... eta abar.

Nafarroako 1 ikastolako gurasoen Biltzar Nagusi bat izendatu da. Biltzar Nagusi honek Diputazioaren (Ser- vicio de Enseñanza) dela- koarekin maizetan bilerak izaten ditu. Uste dut ikas- toletako gauzak bide onean debiltzela Gurasoak kontent daude eta Ikastolak aurre- ra dijoaz xoriez.

### "Euskal Izenak"

Urdialin'go Erretore. Eus- kal Akademiako, eta Eus- kal Herri guztietako afere- en langile zintzo eta trebea den José Mari Sasturategi jauna euskal izenai buruz- ko lan interesgarri bat pre- statzen ari da.

Irufeko Banka Etxe den "La Vasconia" delakoak Sa- strategi jaunari eskatu dio "Euskal Izenak" ren gailu liburu bat prestatzeko "La Vasconia" k pagatuko ditu dirukontu guztiak. On Jose Maria oso aurreratua dan- ka bere lana.

Beharrezkoa da Euskal Herriko gurasontzat "Eus- kal Izenak" lan hau antola- tu eta argitara ematea.

IKUSLE

## BRETAÑA eta GALES.

## IRLANDA

Franziako mendeabaleko erdiko kosta aldera dago Bretaña, eta GALES, Ingle- terrakin mugatzen duen errasuna edo nazioe tipia da, horren mendeabalean.

BRETAÑA, boat departa- mentutara edatzen da, 3 mil- loi baino gelago bizilagun- nekin; hauek 750.000 gut- ti gora beera mintzatzen di- ra bretoinez, baina kan- pafian eta herriska tipie- tan; hirietan eta kasik adit- zen eta Elizetan ere ez.

Telebixtatik, duela denbo- ra gutti, bi aldiz astean ematen dituzte bretoinez, bi- minuto baino guttiago irau- nez halabainan; Radiotik be- rri amabostean bein, 20 mi- nutoz bakarrik.

Gobernuak aspalditik ez- du eskolatan sartzea uzten mintzaira, eta bretoinek irak- turtzera in in dute ikasi izan; duela 85 urteko huma- rat, gero eta gelago ixiltzen doale mintzaira hau; ezdute, Galesetarik bezaia, izkun- tzi txorik dedikatzen den Elkarterik; gurasoek ezdie semeerik beren eleaz mintza- tzen; baina duela 10 urteko honat, aldakuntza bat sumat- zen da eta mintzaira ikasten asi da gazteria, bereziki ikas- leak; Gales-en indartu nai dute bizirik dagoen izkuntza eta Bretoinian jadanik gal- durik dagoena.

Bi izkuntza horiek zelti- koak dira, frantzea eta. in- glesetik arras berezi; Gales- en Radiotik asteen 13 ordu- ematen dituzte galeser eta Irlandan gaelikoz (hau ere zeltikoa) 21/2 ordu egu- nero. Radio emanaldi hauek Bretoinian baino indar eta edadura auziz gelago dute, hango herritarren ganik di- ru laguntza auziz eskurat- zen dutelako, eta Irlandan Gobernuarengandik; bai li- buruak argitaratzeko, Arte- tarako, eta bieieketa irakas- teak zabaltzeko.

Bretanian berri asko ahulago dago izkuntza, eta

Gobernuak ezdu laguntzen; GALV deritzan Elkarte bat- tek bilkurak eta batzarreak abiatzen ditu, mintzairaren alde eta Eskolen alde, bai- no frantzeser. Ostatu, den- da eta aaltokietako izkribuak eta titulak berri, bretoi- nez daude asko, eta jende eta anderen itxurak ere, Franziaz bestelakoak, honela etzazu batere Franzian za- dela iduri, bretoina eta frantzea arrotz diferent- batira.

Irlandan guti egiten da gaelikoz, baina Gobernuaren laguntzarik badi; borroka minena GAELTACHT deit- zen diren eskualde urrun- tan pairatzen du gaelik-iz- kuntzak; GAELTACHT izen horrek galeser mintzatzen den eskualde adiarazten du (basteretan dauden GAL- WAY, MAYO, DONEGAL, CORK eta halako lurralde tipiak), Irlandako gobernu- ak ezditu "Reservation" edo ugarte bezala itxi nai es- kualde horiek; ahalkegarri litzake, Ipar-america-ko in- dio larrugorriekin konpara- tzea; orain 70.000 bat egiten dute denen artean, eta egu- netik egunera usten diran lurralde horietan lapideak muntatzea eta lantokiak sor- tu nai izatea, carrera contra reloj edo astiaren lasterketa bat da.

ESKUALDEKATZE edo MULTXOKATZE

Meneko mintzairatza itze- gin ontotik R. C. idazleak diona aipa dezagun. Merka- tari eta empresario zenbait asi dira, bereziki Baiona al- dean, hango eta hemengo- arteko merkatalgoa abiarazi- naiez. Lehenago batean ere mintzatu izan gara afera- huntzat; berri ere alpatzea komeni deli uste dugu. Abiatze-naikari horrekin ikusteko baduela iduri zait, Espainian eta Merkatu ko-

munaren arteko auziak. Dua- la denbora puska bat erri- ten zuten IZARRA edariaren lantegi aundiko buru den batek:

"... Hemengo Euskalherria rentzat (Iparreko eta) Akitania berarentzat ere (Akitania, Bidasoako mugak- ko hau beira, Beldierako edatzen den eskualde da), izigarri premiatu du Espai- nia Merkato komunaren sar- tzea. Bestaldeko eskualdu- nak (Egoaldekoak) gu bai- no lehenagotik eta askoz gelago, industriako lanetan ari dira.

Muga hori hertsiki tink- turik zagoelakoa, ezdugu ongi ezagutzen Hego Euska- lherria. Merkatu gisa gure- ko hurbileña da, aberate- na; gure soberakinaren beha- rretan da, eta gu han lan- tzen dituzten gauzen beha- rretan gara.

Elgarren laguntzeko egi- nak gara ekonomian, beste asko gauzatzen bezaia."

Gure arteko askok, beste- lako naikaria dutela bada- kigu, baina IZARRA-ko jaun horrek arrazionalen da- goela iduri zaigu; Europa- ko merkatuaren barrenen egonez, europatirrago bika- kutako diralekotz denak, nai eta naiez.

Denek dakiten bezaia Eu- ropako erresumenan, Fran- zia da zentralizatua, eta zentralizazioa Administrazio- neak 100 zerga —dirutik 90-ak bere aldera biltzen di- tu; eskualde edo regionar- dako diru gutxi utzirik. Ba- nian Europari, beste erre- suak eskuzabaloak badi- re Suezak % tik 31 eta Suezak 45.

Eskualdekatzeko edo herri- multxokatzeko delako Regio- natze hori, beraz abantxu dena diru kontuan dago, munduko eta pertsonen ar- teko asarriedak eta lu- karrak bezaia.

A. APAT-ETXEBARNE